



TOKIKO AGENDA 21 HONDARRIBIA EKINTZA PLANA

2013ko EMAITZAK

Gipuzkoako udalerriei
TA21eko ekintza planak
ebaluatzeko zerbitzua

Laguntza teknikoa: *Enea*



TA21EKO BEHATOKIA
OBSERVATORIO AL 21
GIPUZKOA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio

Tokiko agenda 21

Tokiko agenda 21 1992an jaio zen Rio de Janeiron ospatu zen **Iraunkortasun Garapenari** buruzko Nazio Batuen Gailurrean lortutako hitzarmen bidez.

20 urte beranduago bere presentzia **Gipuzkoan** oso esanguratsua da.

Tokiko agenda 21aren presentzia Gipuzkoan

- **83 udalerrik tokiko agenda 21** onartu dute.
- **40** udalerrik beren tokiko agenda 21a urtero ebaluatzen dute, hauen artean, gureak, udalerrri hauek **Gipuzkoako biztanleriaren % 80 baino gehiago** hartzen dutelarik. Kasu hauetan, agenda 21a kontuen emateari bideratutako udal kudeaketa eredu gisa aurkezten da.
- Aldundiak **9** urte daramatza **tokiko agenda 21aren Behatokitik** bere garapena eta ebaluazioa sustatuz, baita udal politika hauen helburuekiko kudeaketa bultzatuz ere.


Nolakoa da gure udalerriko ekintza plana?



Eta gainontzeko tokiko agenda 21ekin alderatuz?

Gure planeko **ekintza kopurua**, antzeko tamaina duten lurraldeko udalerrien batez bestekoarekin alderatuz **altuagoa** da.

Inplikaturik dauden **eragileen kopurua** lurraldeko batez bestekoa baino **baxuagoa** da.



Iturria: GFAko 2013ko emaitzen txostena


2013ra arte zenbat gauzatu dugu?

Planaren **%36 gauzatu** da **5** urteetan

%6ko gehikuntza **2013an**


Eta zer adierazten du?

Lortutako gauzatze maila baxuagoa da oinarri bezala desiragarria den **helburuko balioa** hartuz, eta baita **baxuagoa** ere urte horretan bertan lurraldeko **batez besteko balioa** hartuz.



Iturria: GFAko 2013ko emaitzen txostena

Nola dago momentu honetan gure plana?



2013an amaitutako ekintza batzuk

- 5.1.2. Hirigune historikoaren peatonalizazioa gauzatu, motordun garraiobideen sarrera kontrolatuz eta garraiobide pribatuen sarrera ekiditeko pausoak emanez, beti ere, bertako bizilagunei zuzendutako alternatibak martxan jarri.
- 7.1.8. Uraren saneamendu sarearen sektorizazio proiektuarekin jarraitu.
- 7.4.3. Eskualderako aurreikusitako Garbigune berriak martxan jarri, horietako bat Hondarribian kokatutako egotea bultzatuz.
- 7.4.7. Hondakin organikoak kudeatzeko konpostajea martxan jarri.

Ezartze-maila esanguratsua daukaten ildo estrategikoak

Burutzen ari diren **ekintza**
batzuk:

Mugikortasuna eta
irisgarritasuna
iraunkortasun
irizpideekin bermatzea
%60eko ezarpenarekin

- 5.1.5. Herritarrek garraio publikoa ohiko joan etorrietan erabil dezaten, Udaletik gaur egun dagoen garraio publikoaren inguruko zerbitzua ezagutzera eman.
- 5.3.1. Garraiobide eta garraio azpiegitura ez motordunen eskaintza eraginkorra eta erakargarria osatu

Tokiko garapen
iraunkorraren aldeko
udalaren jarrera
eredugarria bultzatzea
%50eko ezarpenarekin

- 3.2.3. Agenda 21en prozesua eta Eskolako A21en arteko koordinazioa bultzatzea.
- 3.3.1. Udalak tokiko garapen iraunkorrarekin zerikusia duten komunikazio eta sentsibilizazio kanpainak antolatzea.
- 3.6.1. Udal erosketa eta kontratazio jardueran iraunkortasun irizpideak txertatzen joatea.

2014an sustapena behar duten ildo estrategikoak

Natura ingurunea babestea eta **bere baloreak ezagutzera** ematea **%18**ko ezarpenarekin

Hirigintza modu iraunkorren diseinatzea eta planifikatzea **%23**ko ezarpenarekin

Informazioa gehiagorako gure web-ean dagoen **ebaluazio txosten osoa** begiratu dezakezu:

www.hondarribia.org

Hondarribiko Udaletik tokiko iraunkortasuna hobetzearen alde egin nahi dugu, gure ekintzek globalki ere izan dezaketen ondorioak kontutan izanik.

‘Globalki pentsatu eta tokian jardun’

